

## Albisteak iruditan

# 12 milioi litro, sagardozaleen zain

**G**ure Sagardo Berria! leloa ahoan harturik, Izaro Andres abeslariak 2020ko txotx bolada ireki zuen Astigarragako Alorrenea sagardotegian, XXVII. Sagardo Berriaren Egunaren ospakizunean. Aurretik, sagarrondo berri bat landatu zuen Sagardoetxeko sagastian.

### Bertako sagarra nagusi

2019ko uztarekin 12 bat milioi litro sagardo ekoitzi dira Euskal Herrian, 8,5 milioi bertako sagarrarekin. Horietatik 3 milioi litro sagardo Euskal Sagardoa Jatrorri Izendapenarekin merkaturatuko dira. Guztira 48 sagardotegik egin dute Euskal Sagardoa izendapenarekin: Gipuzkoako 41ek, Bizkaiko 5ek eta Arabako 2k.

### Euskal Sagardoa, %30etik gertu

Euskal Sagardoaren ekoizpena hortaz, hazten doa. Laugarren uzta honetan %30etik gertu ibili da eta orain ahale-



Izaro Andres kantariak eman zion hasiera txotx garaiari. Instituzioetako ordezkariekin batera ageri da argazkian.

gina merkaturatzean jarri behar dela nabarmendu zuen Unai Agirrek: "sagardoa beste modu batean kontsumitzea sustatu behar da eta produktuak duen

kalitateari dagokion moduan saldu behar da". Horregatik, Euskal Sagardoa ostalaritzan sustatzeko garaian, 2020a estrategikoa izango da.

## Laburrean

### "Dantza", Inauteri Festarako mozorroa

Gogoan izan, "Dantza" dugu otsailaren 22an ospatuko den Inauteri Festan mozorrotzeko gaia.

Jaialdiari buruzko xehetasun gehiago hurrengo asteetan eskainiko ditugu aldizkari honetan.

### Ikastaro ugari KzGunean

■ Urtarrilak 28, 18:00-20:00 "Zure bidaia planifikatu".

■ Urtarrilak 30, 16:00-18:00 "WhatsApp. Bat-bateko mezularitza".

Informazio gehiagorako: 943 023 684  
tutor.usurbil@kzgunea.net

### Tripontzia zozketako sari potoloa, Deustura

60.000 euroko sari nagusia: 8121, Lapurdi seriea (Deustun saldua). 2.000 euroko sariak zenbaki bereko gainerako zazpi serieentzat: 8121 (Deustun saldua).

■ 2. saria: 24.628 (Azpeitian saldua).  
■ 3. saria: 17.541 (Aieten saldua).

# noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaia.eus // www.noaia.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Iloia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.  
**Disinu berria:** Erroit S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Itxaso Orbegozo.  
**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaia.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza, Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaia.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia

